



Asier Robles ✕
Aktualitateko erredaktorea /
Redactor de actualidad



Sei emakumeren bidegurutzeak dakartza Nerea Loiolak bere liburu berrian

Maitasuna, desioa, sexua, emakume gorputza, gizarteak ezarritako genero espektatibak, amatasuna, beldurra, antsietatea, nahiak, ardurak, ezinak... Sei protagonista ezberdin baliatuz, irakurleak bere burua ikus dezakeen narrazio bilduma idatzi du Nerea Loiolak: ‘Zebrak eta bideak’.



Nerea Loiola Pikaza 'Zebrak eta bideak' liburuaren aurkezpenean. (Jagoba MANTEROLA | FOKU)

Nerea Loiola Pikazak ‘Zebrak eta bideak’ liburuia aurkeztu du astearte goiz honetan Erein argitaletxeko egoitzan. Elkarren artean oso ezberdinak diren baina elementu amankomunak dituzten sei ipuinez osatua da idazle debarraren bigarren narrazio bilduma hau. Erakarmen-indar handiko istorioak dakartza Loiolak berriz ere; «beti giza harremanei eta emozioen euste-hormen pitzadurei so, xehetasunari eta keinuari adi».

Ingeniaritza Mekanikoan graduatua da Loiola, eta idazlea eta literatura-bitartekaria lanbidez. Helduen narratibaz gainera, artikulugintza, gidoigintza, komikia eta haur eta gazte literatura landu ditu. Bereak dira, besteak beste, ‘Harri bat poltsikoan’ (2018) eta ‘Naian’ (2022) haurrentzako ipuinak; gazteei zuzendutako Eskapu Liburuak bildumetako ‘7G udalekuak’ (2022), ‘Azken denbora’ (2023) eta ‘AHT’ (2024); eta ‘Epizentroa’ (2021) narrazio liburuia.

Helduentzako bere lehenengo liburuia argitaratu ondoren, 2021ko udazkenean, hasi zen gaurkoan aurkeztu duen liburuia idazten, eta 2023an Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen RGG beka irabazi nuen lan honekin. Orain, badago liburu dendetan.

Loiolak berak azaldu duenez, sei ipuin autonomoz osatuta dago liburuia eta, bizitzak ezarritako bidegurutzetan aurrera egin beharko duten sei emakume dira pertsonai nagusiak. Protagonisten ahotsetatik kontatutako ipuinak eta kanpo narratzaile batek kontatutakoak aurki ditzake irakurleak.

«Gazte bat, ezezkorik esan ezin diona bere etxeko terrazan lkeako iragarki bat grabatzeari. Emakume bat, haur jaioberria gauetz esnatzearen beharrak obsesionaturik, edozer egiteko prest dagoena idazten ari den ipuina amaitzeko. Iraganeko gertakari tragikoa, ustez desiratutako bizitzaren zimenduak astintzera itzuli dena. Noraezean dabilen nerabea, askatasunaren konplexutasunak ezinbestean kolpatuta. Beste emakume bat, ekilibrioak egiten dabilena pultsio basati batekin eta bultzatzen duena bere baitatik ihes egitera, gertatu beharrekoari gertatzen uztera. Ama-emazte eredugarria, hoteleko ohe handiegiaren izara artean katramilatu dituen desirak, beldurrak eta marra gorriak», aipatu du Loiolak ipuinei buruz.

Inazio Mujika Erein argitaletxeko editoreak nabarmendu duenez, «sakontasun psikologiko handiko argazkiak» agertzen dira liburuan. «Istoriok oso ondo kontatzeaz gain, Nereak oso ondo daki atmosferak eraikitzen eta kontatzeko moduak ematen die batasuna sei ipuinei. Dena sinesgarria den atmosfera batzuk eraikitzen ditu, giro oso desberdinetan, eta nork bere burua ikus dezake istorio bakoitzean», gehitu du.

Loiolak nabarmendu duenez, «giza harremanetan ezarritako ardatzak eta atmosferak» ematen diote osotasuna liburuari: «Maitasuna, desioa, sexua, emakume gorputza, gizarteak ezarritako genero espektatibak, amatasuna, beldurra, antsietatea, nahiak, ardurak, ezinak...». Detaileetan eta keinu eta ekintza txikietan arreta jarri nahi izan du idazleak.

PUBLIZITATEA

PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA





Klikatuena

- 

Un perfil que vincula solidaridad con inseguridad, ¿quién está tras la concentración de Egia?
- 

Más de 60 bomberos vascos parten «por fin» hacia València
- 

Gritos de «fuera» y barro contra la comitiva encabezada por el rey español en Paiporta
- 

Aparecen cadáveres en playas y, de momento, no hay fallecidos en el parking de Bonaire
- 

Iván Carmona, guitarrista de Lendakaris Muertos, apartado del grupo acusado de agresión sexual



naiz:

Info

Euskal Herria
Ekonomia
Mundua
Naiz+
Bilbotarra
Donostiarra
Gasteiztarra
Iruindarra

Kirolak

Futbola
Saskibaloia
Eskubaloia
Pilota
Txirrindularitza
Arrauna
Motoak
Herri Kirolak
Errugbia

Iritzia

Editoriala
Zugazart
Artikuluak
Zuzendariari eskutitzak
Iritzi Blogak

Kultura

Bideoak

Argazki galeriak
Audioak

Eskelak

Denda
Eguraldia

Jaso gure newsletterra

Jakin beharreko albisteak besterik ez dizugu bidaliko. Spamik gabe.

Emaila

BIDALI

Webgune hau reCAPTCHA-k babestuta dago eta Google **Pribatasun Politika** eta **Zerbitzu Baldintzak** aplikatzen dira.

irratiia ZUZENEAN

